

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Matrioska heart.
Saioa.
Moonpalace Records.
Iraupena: 65'38".
10 euro.

Pop eta folk geldo eta sakona, barru-barrukoa

SAIOA GARIN legorretarraren bigarren lana ere Moonpalace diskoetxe apartekoaren eskutik dator. Batek baino gehiagok Saioa Anarirekin parekatu badu ere, bakoitzak bere bidea dauka, egia bada ere, kantaren batean antzekotasunak dituztela tankerako erregistroak erabiltzen dituztelako. Baina, Saioaren piezak geldoagoak eta xuxurlagarriagoak dira, biluziagoak aldi berean; eta ingelesa dauka hizkuntza kuttun. Bigarren lan honetan, beti ere euskara eta ingelesa

tartekatuz, kantuei intentsitatea gehitu die, akordeoi eta tarteka gitarra elektriko baten laguntzarekin. Bestalde, Cat Power ikono izan dezakeen arren, Waits-en negargura, Young-en oihartzuna, Cooderren mugaldeko ukitua eta Frantziako malenkonia ere gogora ekarri dizkit. Barrua husten duen ahala, ez dio iraupenari begiratzen, sentimenduei baizik.

www.myspace.com/saioasounds

Saioa

«Abesti bat jaiotzean sentimendu deserosoren bat kontrolatzearen sentsazioa dut»

Erraza da Matrioskaren bihotzeraino heltzea? Zer dago barruan?

Panpina errusiar horiek bezala, gure barnean milaka 'ni' ezkututzen dira; batzuetan bat bistaratzen da, baina horrek ez du esan nahi barruan hori bakarrik dagoenik. Eta ausartzen naiz esatera nire bihotzaren barruan galderaz betetako 'ni' bat dagoela; nire abesti guztietan islatzen dira galderak.

Inputtsoka egiten duzu lana, batzuetan bakarrik konposatu eta zuzenean jotzen duzu? Ala perfekzionista zara eta buelta asko ematen diozu edozer plazaratu aurretik?

Inputtsoka egiten dut bai. Disko honetako abesti guztiak prest nituenean berehala joan nintzen estudiora eta lau egunetan egin genuen. Hala ere, uste dut azkarregi grabatu genuela. Alferkeria handia ematen dit abesti bera behin eta berriz jotzeak, gehien gustatzen zaidana sormen prozesua delako; barrutik zerbait ezezaguna atera, eta ezaguna

bilakatzen den momentuari jarraik ibiltzen naiz.

Adaxkak adaxketatik da Ama Naturaren eta gure arteko bateratasunaren adibide argiena?



Izan daiteke. Nire ustez pertsonok zuhaitzen antza daukagu. Gorputz-enborra daukagu, sustraiak eta galdera amaigabeak ditugu, adarrak. Halako "abesti gordinak" erditzea gogorra da zuretzat? Sentimendu handia jartzen duzu.

Bai, definizio hori egokia iruditzen zait. Niretzat ez da gogorra abestiak erditzea; justu kontrakoa esango nuke: abesti bat jaiotzean sentimendu deserosoren bat kontrolatzen dudaren sentsazioa nabaritzen dut, barruan gordeko banu arriskutsua litzatekeena.

Nola suertatu zen gitarra eta akordeoia batzearena?

Abestiak gitarra hutsarekin sortu nituen, baina akordeoia ukitu polita eman ziekeela iruditu zitzaidan: abesti luzeak eta erritmo motelekoak dira, eta akordeoia moteltasun hori arintzeaz gain, kutsu malenkoniatsua gehitzen dio. Gitarra elektrikoaren aukera estudiora sortu zen. ■